# Xedapen Orokorrak

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA**

**1686**

EBAZPENA, 2011ko martxoaren 11koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasleen errektoreordearena, UPV/EHUko irakasleen ordezkoak egiteko izangaien zerrendak gestionatzeko arautegia argitaratzeko agindua ematen duena.

Otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, honakoa dio 25. artikuluan: lanpostuen zerrendetako lanposturen bat hutsik gelditzen bada, bai heriotzaren bat gertatu delako edo beste arrazoiren bat egon delako, bai lizentzia izateagatik zein legean aurreikusitako beste edozein arrazoirengatik norbait kanpoan delako, eta lanpostu hori atxikita dagoen jakintza arloko irakasleek irakaskuntzako premiei erantzun ezin badiete, unibertsitateak ordezkoak kontratatu ahal izango ditu, behar den beste denborarako, aplikatzekoa den lan kontratuarekin bat etorriz, betiere plantillen taxuketa orok eskatzen duen arrazionaltasuna, eraginkortasuna eta eragimena kontuan hartuta.

Lege berak, 16. artikuluan dio unibertsitateko irakasleen eta ikertzaileen kontratazioa lehiaketa publikoz egingo dela, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak errespetatuz.

Apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak aldatu egin zuen Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa eta 48. artikuluko 1. atalean dioenez, unibertsitateek aukera izango dute lan kontratudun irakasleak eta ikertzaileak kontratatzeko Langileen Estatutuetan xedatutako modalitateen arabera, lanpostua gordeta izateko eskubidea duten langileen ordezkoak egin ditzaten.

2008ko martxoaren 18an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian martxoaren 4ko 40/2008 Dekretua, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleen eta ikertzaileen araubideari buruzkoa. Dekretu hori argitalpenaren biharamunean sartu zen indarrean eta bitarteko irakasle kontratatuak arautzen ditu 14. artikuluan.

2008ko maiatzaren 8an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian UPV/EHUko irakasleen ordezkoak egiteko zerrendak gestionatzeko arautegia.

Dena dela, hiru urteko esperientziaren ondoren, komenigarritzat ikusi da hainbat egokitzapen egitea arautegian, lan poltsak tresna baliagarri eta eraginkorragoa izan daitezen.

# Disposiciones Generales

**UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO**

**1686**

RESOLUCIÓN de 11 de marzo de 2011, del Vicerrector de Profesorado de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por el que se ordena la publicación del Reglamento para la gestión de la lista de candidatas y candidatos a sustituciones de personal docente de la UPV/EHU.

La Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, establece, en su artículo 25, que en los supuestos de vacante en las relaciones de puestos de trabajo producida por fallecimiento u otras causas, o de ausencia por disfrute de licencias u otras causas legalmente previstas, cuando las necesidades de docencia no pudieran ser atendidas por el profesorado del área de conocimiento a que esté adscrito el puesto, la universidad podrá contratar sustitutas o sustitutos, por el tiempo que sea preciso, conforme al tipo de contrato laboral de aplicación, atendiendo siempre a las exigencias de racionalidad, eficacia y eficiencia que todo diseño de plantilla requiere.

La misma Ley en su artículo 16 establece cómo la contratación de personal docente e investigador de la Universidad se realizará mediante concurso público, con respeto a los principios de igualdad, mérito y capacidad.

La Ley Orgánica 4/2007, de 12 de abril, se modificó la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades en su artículo 48 apartado 1.º establece que las universidades podrán contratar personal docente e investigador en régimen laboral mediante las modalidades previstas en el Estatuto de los Trabajadores para la sustitución de trabajadores con derecho a reserva del puesto de trabajo.

Con fecha 18 de marzo de 2008 se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco el Decreto 40/2008, de 4 de marzo, sobre régimen del personal docente e investigador de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Decreto que entró en vigor al día siguiente a su publicación y que regula, en su artículo 14 el profesorado contratado interino.

Con fecha 8 de mayo de 2008 se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco el Reglamento para la gestión de la lista de candidatas y candidatos a sustituciones de personal docente de la UPV/EHU.

Sin embargo, con la experiencia acumulada durante tres años, parece conveniente ahora realizar determinadas adecuaciones en el Reglamento anteriormente citado al objeto de hacer de las bolsas de trabajo una herramienta más útil y eficaz.

Beraz, Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak, 2011ko martxoaren 10ean egindako bileran, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleen ordezkoak egiteko izangaien zerrendak gestionatzeko arautegia onartu zuen.

Hori guztia kontuan hartuta, eta aintzat hartuta, era berean, otsailaren 25eko 3/2004 Legeko (2004-03-12ko EHAA) 10.2 artikuluari jarraituz unibertsitateak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar dituela unibertsitateko gobernu organoek emandako aplikazio orokorreko xedapenak, eta horiek ez direla indarrean jarriko harik eta testua oso-osorik argitaratu arte, honako hau

EBATZI DUT:

UPV/EHUko irakasleen ordezkoak egiteko izangaien zerrendak gestionatzeko arautegia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua ematea.

Leioa, 2011ko martxoaren 11.

Irakasleen errektoreordea,
JON IRAZUSTA ASTIAZARAN.

ERANSKINA

ARAUTEGIA, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO PERTSONAL IRAKASLEEN ORDEZKOAK IZATEKO GURAKOEN ZERRENDAK GESTIONATZEKOA

***1. artikulua.–*** Aplikazio-eremua.

1.– Honako arautegi honen bidez Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleen ordezkoak egiteko zerrendak osatu eta gestionatzeko irizpideak ezarriko dira.

2.– Ordezkoak egiteko zerrenden helburua lankontratudun bitarteko irakasleak kontratatzea da, betiere, kasuan kasuko jakintza arlo eta saileko plantillako irakasleek ez badute soberakinik aldi baterako irakaskuntza beren gain hartzeko eta egoera honakoetako bat gertatzen bada:

a) Irakasleak, bere eskubideei jarraituz, lanpostua uzten duenean lanpostua gordeta izateko eskubidea izanda (gaixotasun-baja edo lizentzia, amatasuna edo aitatasun-baja edo lizentzia, zerbitzu-betekizunak, zerbitzu bereziak, lizentzia sabatikoak, eszedentziak, lanaldi-murrizketak, sindikatuan lan egiteko liberazioa eta abar) edo irakaslea, irakats betebeharrak murriztuta izatea edo betebehar horietatik salbuetsita

Pues bien, el Consejo de Gobierno de la UPV/EHU, en sesión de 10 de marzo de 2011 aprobó el Reglamento para la gestión de la lista de candidatas y candidatos a sustituciones de personal docente de la UPV/EHU.

Por todo lo anterior, y en cumplimiento de lo previsto en el artículo 10.2 de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco (BOPV de 12 de marzo de 2004) que establece la obligación de la Universidad de dar publicidad en el Boletín Oficial del País Vasco a las disposiciones de general aplicación que dicten los órganos de gobierno de la misma, las cuales no entrarán en vigor hasta la íntegra publicación de sus textos,

RESUELVO:

Ordenar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco del Reglamento para la gestión de la lista de candidatas y candidatos a sustituciones de personal docente de la UPV/EHU.

En Leioa, a 11 de marzo de 2011.

El Vicerrector de Profesorado,
JON IRAZUSTA ASTIAZARAN.

ANEXO

REGLAMENTO PARA LA GESTIÓN DE LA LISTA DE CANDIDATAS Y CANDIDATOS A SUSTITUCIONES DE PERSONAL DOCENTE DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

***Artículo 1.–*** Ámbito de aplicación.

1.– El presente Reglamento establece los criterios para la constitución y gestión de las listas de candidatas y candidatos a sustituciones de personal docente en la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

2.– Las listas de candidatas y candidatos a sustituciones se constituyen con el objeto de contratar Profesorado Laboral Interino, siempre que el profesorado de plantilla del Departamento y área correspondiente no tenga capacidad suficiente para asumir su docencia temporal, cuando concurra alguno de los siguientes supuestos:

a) Cobertura de la docencia en supuestos de ausencias con derecho a reserva del puesto de trabajo de profesoras y profesores (bajas o licencias por enfermedad, maternidad y paternidad, comisiones de servicios, servicios especiales, licencias sabáticas, excedencias, reducciones de jornada, liberación sindical, etc.) o la designación para ejercer cargos académicos que comporten la exoneración o reducción de las

egotea dakarten kargu akademikoak betetzen dagoenean; unibertsitatearekin daukan lotura profesionala, funtzionarioena barne, edozein delarik ere.

b) Ezustean hutsik geratutako plazen irakaskuntza bete behar denean, unean uneko akademi ikasturtea amaitu arte.

c) Salbuespenez, eta, betiere, Irakasleen Plan Zuzendariaren babesean hartutako akordioekin bat etorrita, aurrekontuz hornituta egonik irakasle funtzionario edo lan-kontratuko irakasleen plaza baten aldi baterako irakaskuntza-hornidura, arauek aurreikusitako erari jarraituz plaza behin betiko beteko den arte.

3.– Bigarren atalean adierazitako premiaren bat sortzean, kasuan kasuko sail eta jakintza-arloan ordezkotzarako poltsarik ez balego edo, honelakorik egonik ere, inor ez balego premia betetzeko moduan, poltsa osatu edo hedatzeko deialdi publikoa egin beharko da. Jakintza-arloko lan-poltsa agortuta egonez gero, arlo kideetako poltsak ere erabili ahal izango dira.

4.– Ordezkoak egiteko zerrenden helburua izango da beren indarraldian (kasuan kasuko deialdian zehaztu beharrekoa) sor litezkeen premiak betetzea.

***2. artikulua.***– Zerrendetara sartzeko baldintza orokorrak.

1.– Honako hauek dira zerrendetara sartzeko baldintza orokorrak:

1.1.– Titulazioa akademikoa: ezinbestekoa da lizentziadun, ingeniari edo arkitekto titulua izatea edo horien titulu baliokideren bat.

Ondoren aipaturiko jakintza arloetan ordezkoak egiteko zerrendetara sartzeko, nahikoa izango da unibertsitateko diplomatua, arkitekto teknikoa, ingeniari teknikoa edo horien titulu baliokideren bat izatea: 0065 Materialen Zientzia eta Metalurgia-Ingeniaritza; 0187 Gorputz-Adierazpidearen Didaktika; 0189 Musika-Adierazpidearen Didaktika; 0193 Plastika-Adierazpidearen Didaktika; 0255 Erizaintza; 0305 Ingeniaritzaren Adierazpen Grafikoa; 0413 Fisioterapia; 0505 Kartografia, Geodesia eta Fotogrametria-Ingeniaritza; 0510 Eraikuntzaren Ingeniaritza; 0515 Fabrikazio Prozesuen Ingeniaritza; 0520 Sistemen Ingeniaritza eta Automatika; 0535 Ingeniaritza Elektrikoa; 0545 Ingeniaritza Mekanikoa; 0590 Makina eta Motor Termikoak; 0605 Ingurumen Jarraituen Mekanika eta Egituren Teoria; 0720 Ingeniaritzako Proiektuak eta 0813 Gizarte-Langintza eta Gizarte-Zerbitzuak.

Zerrendan sartzeko eskatzen den titulazioa atzerrian lortu bada, Espainian homologatuta egon beharko da; Titulu, Baliokidetza eta Homologazioen Azpizuzendaritza Nagusiak egindako egiaztagiriaren bidez egiaztatu beharrekoa, eta ez da nahikoa izango

obligaciones docentes, cualquiera que sea la naturaleza de la relación profesional que les vincule a la Universidad, incluida la funcionarial.

b) Cobertura de la docencia de plazas vacantes sobrevenidas hasta la terminación del curso académico en que la plaza queda vacante.

c) Excepcionalmente, y siempre en el marco de los acuerdos del Plan Director de Profesorado, provisión temporal de la docencia de plaza vacante de funcionario docente o contratado laboral, dotada presupuestariamente, en tanto se realiza su provisión definitiva en la forma reglamentariamente prevista.

3.– En el supuesto de que cuando surja una necesidad de las relacionadas en el apartado segundo, no existiera bolsa de candidatas y candidatos a sustituciones en el Departamento y Área correspondiente, o, existiendo, no hubiera candidatas y candidatos disponibles, se realizará convocatoria pública de constitución o ampliación de bolsa. También será posible utilizar bolsas de candidatas y candidatos a sustituciones de áreas afines, en caso de que la bolsa del área se haya agotado.

4.– Las listas tendrán como objeto la cobertura de las necesidades que a lo largo de su período de vigencia (determinado por la convocatoria correspondiente) pudieran surgir.

***Artículo 2.***– Requisitos generales de acceso a las listas.

1.– Son requisitos generales de acceso a las listas:

1.1.– Titulación académica: es requisito imprescindible estar en posesión de la titulación de Licenciatura, Arquitectura, Ingeniería, Grado o equivalente.

En las siguientes áreas de conocimiento podrán accederse a las listas con la titulación de Diplomatura Universitaria, Arquitectura Técnica, Ingeniería Técnica o equivalente: 0065 Ciencia de los Materiales e Ingeniería Metalúrgica; 0187 Didáctica de la Expresión Corporal; 0189 Didáctica de la Expresión Musical; 0193 Didáctica de la Expresión Plástica; 0255 Enfermería; 0305 Expresión Gráfica en la Ingeniería; 0413 Fisioterapia; 0505 Ingeniería Cartográfica, Geodésica y Fotogrametría; 0510 Ingeniería de la Construcción; 0515 Ingeniería de los Procesos de Fabricación; 0520 Ingeniería de Sistemas y Automática; 0535 Ingeniería Eléctrica; 0545 Ingeniería Mecánica 0590 Máquinas y Motores Térmicos; 0605 Mecánica de Medios Continuos y Teoría de Estructuras; 0720 Proyectos de Ingeniería; 0813 Trabajo y Servicios Sociales.

En el caso de que la titulación exigida para cada una de las listas se haya obtenido en el extranjero deberá haberse concedido la correspondiente homologación en España, que se acreditará mediante credencial expedida por la Subdirección General de Títulos,

homologaziorako eskaria egin dela egiaztatzen duten agiriak aurkeztea (otsailaren 20ko 285/2004 Errege-Dekretua, 309/2005 Errege-Dekretuak aldatua).

Era berean, Europako Batasuna osatzen duten herrietako herritarrek elkarteko kide den beste edozein herritan lortu badute titulua, herri horretan emandako titulua onartzen duen Hezkuntza eta Zientzia-Ministerioaren Agindua erantsi beharko diote tituluari, hau guztia 1995eko urtarrilaren 23an Hezkuntza eta Zientzia-Ministerioak emandako Aginduko bederatzigarren atalaren babesean (urtarrilaren 28ko Estatuko Buletin Ofiziala).

Ez da eskaririk onartuko, baldin eta eskariari dagozkion jakintza-arloetako irakasgaiak irakasteko eskatzen den titulazioaren egiaztagiririk aurkezten ez bada, horretarako kopia soila aski delarik.

1.2.– Euskarari buruzko titulazioa:

Plaza elebidun batean irakatsi ahal izateko, euskaraz irakasteko gaitasun agiria, Euskarako errektoreordeak 2002ko ekainaren 5ean emandako erabakian (uztailaren 11ko EHAA) ezarritakoari jarraituz egiaztatu beharrekoa, edo Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko C1 mailaren balioko tituluak (2010eko azaroaren 15eko EHAA) izan beharko dira.

Kontratu elebidunetarako izangaiek euskaraz irakasteko gaitasun-agiriaren fotokopia aurkeztu beharko dute.

1.3.– Beste hizkuntza batzuei buruzko titulazioa:

Hizkuntza ez ofizialetan eskolak emateko premiak betetzeko osatuko diren lan-poltsetan sartzeko, kasuan kasuko hizkuntzan eskolak emateko gaitasuna izan beharko da egiaztatuta, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak, 2010eko ekainaren 24an (2010-12-2ko EHAA), onartutako erabakiari jarraituz, horren bidez ofizialak ez diren hizkuntzetan irakaskuntza eskaintzeko egiaztagiria eskuratzeari buruzko arautegia onartu baitzen.

Mota honetako kontratuetarako izangaiek hizkuntza ez ofizialetan irakasteko gaitasun agiri egiaztagarrien fotokopia aurkeztu beharko dute.

1.4.– Diziplina-espedientearen bidez administrazio publikoetatik aldendua ez izatea, ez eta eginkizun publikoak betetzeko ezgaituta ez egotea ere.

Zinpeko aitormena aurkeztuta egiaztatuko da.

2.– Ordezkoak egiteko zerrendetara sartu nahi duten izangaiek aurreko paragrafoan adierazitako

Convalidaciones y Homologaciones, no siendo suficiente la mera presentación de documentos que acrediten haber solicitado la homologación (Real Decreto 285/2004, de 20 de febrero, modificado por el Real Decreto 309/2005).

Asimismo, los títulos obtenidos por nacionales de cualquier Estado miembro de la Unión Europea en otros Estados miembros, deberán estar acompañados por la correspondiente Orden del Ministerio de Educación y Ciencia de reconocimiento del título expedido en dichos Estados, de acuerdo con lo previsto en el apartado noveno de la Orden del Ministerio de Educación y Ciencia de 23 de enero de 1995 (Boletín Oficial del Estado del 28 de enero).

No se tendrán en cuenta aquellas solicitudes que no vayan acompañadas de la acreditación, mediante fotocopia simple, de las titulaciones requeridas para impartir las asignaturas de las áreas de conocimiento a las que se opte.

1.2.– Titulación de Euskera:

Para ser llamado para el desempeño de una plaza bilingüe será necesario tener la capacidad para la docencia en lengua vasca, capacidad que se acreditará conforme a lo establecido en la Resolución, de 5 de junio de 2002, del Vicerrector de Euskera (BOPV de 11 de julio) o títulos equivalentes al nivel C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas (BOPV de 15 de noviembre de 2010).

Las y los candidatos a contratos bilingües deberán presentar fotocopia de los documentos acreditativos de tener la capacidad para la docencia en la lengua vasca.

1.3.– Titulación de otros idiomas:

Para incorporarse a una bolsa que tenga por objeto cubrir necesidades de impartir docencia en idiomas no oficiales será necesario tener la capacidad para la docencia en dicho idioma, capacidad que se acreditará conforme a lo establecido en el Acuerdo, de 24 de junio de 2010, del Consejo de Gobierno de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea por el que se aprueba la Normativa sobre la obtención de la Acreditación para impartir docencia en idiomas no oficiales (BOPV de 2-12-2010).

Las y los candidatos a contratos de esta naturaleza deberán presentar fotocopia de los documentos acreditativos de tener la capacidad para la docencia en idiomas no oficiales.

1.4.– No haber sido separada o separado, mediante expediente disciplinario, del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas, ni hallarse inhabilitada o inhabilitado para el desempeño de funciones públicas.

Se acreditará mediante declaración jurada.

2.– Las candidatas y los candidatos que deseen acceder a las listas de sustituciones deberán cumplir

baldintzak beteta beharko dituzte izan eskariak egiteko epearen barruan eta, zerrendetan egon bitartean, mantenduko.

Dena dela, eskariak aurkezteko epea amaitu ondoren izangairen batek egiaztatuko balu euskaraz edo hizkuntza ez ofizialeren batean irakasteko gaitasuna duela eta, aipaturiko betebeharra betetzen duelako agiria, kasuan kasukoa, Deialdi eta Lehiaketen Atalean aurkezten badu, plaza elebidunen edo hizkuntz ez ofizialetako plazen ordezkoak eskaini ahal izango zaizkio une horretatik aurrera. Arestiko honek ez du aldatuko, inolaz ere, merezimenduak baloratzean emandako puntuazioa.

***3. artikulua.***– Baremaziorako irizpideak eta egiaztagiriak.

1.– Baremaziorako irizpide orokorrak honako hauek izango dira:

los requisitos enumerados en el apartado anterior en el plazo de presentación de solicitudes y mantenerlos mientras permanezcan en las listas.

Sin embargo, a las candidatas y los candidatos que acrediten el conocimiento del euskera o de idiomas no oficiales en un momento posterior a la finalización del plazo de presentación de solicitudes y presenten la acreditación documental del cumplimiento del citado requisito en la Sección de Convocatorias y Concursos, se les podrá ofertar, a partir de ese momento, sustituciones con perfil lingüístico bilingüe o con perfil lingüístico de idiomas no oficiales. Lo anterior no supone, en ningún caso, la modificación de la puntuación que en la valoración de méritos se les hubiera adjudicado.

***Artículo 3.***– Criterios de baremación y documentación justificativa.

1.– Los criterios generales de baremación aplicables serán los siguientes:

| Laneko espedientea. eta bekak | Ikerketa-merezimenduak | Irakaskuntza eta gestio akademikoko merezimenduak | Akademi merezimenduak | Euskara | Puntuazioa gehienez |
|---|---|---|---|---|---|
| 25 puntu | 20 puntu | 10 puntu | 25 puntu | 11 puntu | 100 puntu |

| *Exp. laboral y becas* | *Méritos de investig.* | *M. docentes y de gest. acad.* | *Méritos académicos* | *Euskera* | *Punt. máxima* |
|---|---|---|---|---|---|
| *25 puntos* | *20 puntos* | *10 puntos* | *25 puntos* | *11 puntos* | *100 puntos* |

Gainontzeko 9 puntuak batzordearen irizpideen arabera banatuko dira laneko esperientzia, ikerkuntzaren arloko merezimendu, irakaskuntzako merezimendu eta gestio akademiko edo merezimendu akademikoen arloen artean. Batzordeak aktan jaso beharko du 9 puntuen esleipenaren justifikazioa.

LOUren 63. artikuluan zehaztutako lehiaketetan parte hartzeko gaitasun-agiria lortu edo egiaztatuta duten lehiakideen kasuan, merezimenduan lortutako puntuazioa % 20 gehituko da, euskararen jakitemailarengatik emaniko puntuazioa izan ezin, guztira, gehieneko puntuazio gisa ezarri den muga, hau da, 100 puntutako puntuazioa inola ere gainditu ezin delarik.

Era berean, irakasle oso, irakasle agregatu, irakasle kontratatu doktore, irakasle atxiki edo irakasle laguntzaile doktoreen irakaskuntza-irudiei dagokienez, Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentziak, Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziak edo Euskal Autonomia Erkidegoko arautegiak onartutako antzeko erakunde batek emaniko aldeko balioespena eta ontzat emana lukeen izangaiak ere, % 20 gehituko du lortutako puntuazioa, euskararen jakitemailarengatik emaniko puntuazioa izan ezin, guztira, gehieneko puntuazio gisa ezarri den muga, hau da, 100 puntutako puntuazioa inola ere gainditu ezin

Los 9 puntos restantes se imputarán, a criterio de la Comisión, en la experiencia laboral, méritos de investigación, méritos docentes y de gestión académica o méritos académicos. La comisión deberá reflejar en el acta la justificación de la imputación de los citados 9 puntos.

La puntuación alcanzada por una candidata o candidato habilitado o acreditado para participar en los concursos a los que se refiere el artículo 63 de la LOU se verá incrementada en un 20% de la puntuación de todos los méritos con excepción del Euskara, sin que en ningún caso se pueda sobrepasar la puntuación establecida con carácter general, es decir, 100 puntos.

En el mismo sentido, la puntuación alcanzada por una candidata o candidato con evaluación positiva o informe favorable de la Agencia de Evaluación de la Calidad del Sistema Universitario Vasco, de la Agencia Nacional de la Evaluación de la Calidad y Acreditación u organismo similar reconocido por la normativa vasca, para las figuras docentes de Profesorado Pleno, Profesorado Agregado, Profesorado Contratado Doctor, Profesorado Adjunto, o Profesorado Ayudante Doctor se verá incrementada en un 20% de la puntuación de todos los méritos con excepción del Euskara, sin que en ningún caso se pueda sobre-

delarik. Balioespen positibo edo aldeko txosten bat baino gehiago izanik ere, ez da puntuazioen gehikuntzarik inola ere metatuko.

Era berean, unibertsitate-diplomatura, arkitektura tekniko, ingeniaritza tekniko edo titulu baliokidea izan eta, 2.1.1 artikuluan zerrendaturiko jakintza-arloetan unibertsitate-diplomatura, arkitektura tekniko, ingeniaritza tekniko edo titulu baliokidearen titulazioa izateko betebeharraz irekiko diren zerrendetara sartu nahi lukeen izangaiak, Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentziak, Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziak edo Euskal Autonomia Erkidegoko arautegiak onartutako antzeko erakunde batek irakasle lankideen irakaskuntza-irudian jarduteko emaniko aldeko balioespena eta ontzat emana balu, % 10 gehituko du lortutako puntuazioa, euskararen jakite-mailarengatik emaniko puntuazioa izan ezin, guztira, gehieneko puntuazio gisa ezarri den muga, hau da, 100 puntutako puntuazioa inola ere gainditu ezin delarik. Balioespen positibo edo aldeko txosten bat baino gehiago izanik ere, ez da puntuazioen gehikuntzarik inola ere metatuko.

Aipatu berri den gehikuntza puntuazio osoari ezarriko zaio, eta ez baremaziorako atal bakoitzean lortutakoari. Kasu honetan, izangairen batek, puntuazioan izandako gehiketa horren ondorioz, puntuazio osoan gehienez ere lor daitezkeen puntuazioa (hau da, 100 puntu), gaindituko balu, gehieneko puntuazio hori berori emanen zaio izangaiari.

2.– Ohar orokorrak.

– Ezin izango da baloratu gabe utzi baremazioko irizpideetan zehaztutako atal bat bera ere.

– Merezimendu bat atal batean baino gehiagotan balioetsi ahal denean, izangaiari puntuaziorik handiena emango dion atala hartuko da kontuan.

– Balioespen-batzordeak gutxieneko nota bat ezar lezake, inola ere 30 puntutatik gorakoa ez, izangaiek ordezkoak egiteko zerrendara sar daitezen eta, behar bezala arrazoitu beharko du aktan, batez ere ordezkoak egiteko zerrenda hutsik geratu bada.

– Haztapenak:

1) Izangairen batek atalen batean ezarritako gehieneko puntuazioa gainditu egingo balu, gehieneko puntuazio hori berori emanen zaio izangaiari, baina, hala izanik ere, gainontzekoei ez zaie puntuazioa proportzionalki haztatuko atal horretan.

pasar la puntuación establecida con carácter general, es decir, 100 puntos. En ningún caso, el incremento de puntuación sea acumulable por contar con más de una evaluación positiva o informe favorable.

De igual forma, la puntuación alcanzada por una candidata o candidato con la Diplomatura Universitaria, Arquitectura Técnica, Ingeniería Técnica o equivalente, que opte a las listas que se abren con el requisito de titulación de Diplomatura Universitaria, Arquitectura Técnica, Ingeniería Técnica o equivalente en las Areas de Conocimiento relacionadas en el artículo 2.1.1, con evaluación positiva o informe favorable de la Agencia de Evaluación de la Calidad del Sistema Universitario Vasco, de la Agencia Nacional de la Evaluación de la Calidad y Acreditación u organismo similar reconocido por la normativa vasca, para la figura docente de Profesorado Colaborador, se verá incrementada en un 10% de la puntuación de todos los méritos con excepción del Euskara, sin que en ningún caso se pueda sobrepasar la puntuación establecida con carácter general, es decir, 100 puntos. En ningún caso, el incremento de puntuación sea acumulable por contar con más de una evaluación positiva o informe favorable.

El incremento de la puntuación a que se ha hecho referencia se aplicará sobre la puntuación total, sin atender a la puntuación correspondiente a cada apartado del baremo. En este caso, si un concursante superase, como consecuencia de aplicar dicho incremento, la puntuación establecida con carácter general, para los distintos criterios de valoración, tomados en su conjunto (es decir, 100 puntos), tal concursante será calificado con dicha puntuación máxima.

2.– Consideraciones generales.

– No se puede dejar de valorar ningún apartado previsto en los presentes criterios de valoración.

– Cuando un determinado mérito pueda ser considerado en más de un apartado, lo será únicamente en aquél en el que el candidato obtenga mayor puntuación.

– La Comisión podrá establecer una nota mínima, que en ningún caso puede superar los 30 puntos, para que las candidatas y los candidatos puedan acceder a la lista de candidatas y candidatos a sustituciones, debiendo justificarlo debidamente en la correspondiente acta, especialmente en el supuesto de que ninguna candidata o candidato accediera a la lista a sustituciones.

– Ponderaciones:

1) En el caso de que un concursante supere en un apartado concreto la puntuación máxima prevista para el mismo, tal concursante será calificado con dicha puntuación máxima sin que, sin embargo, las puntuaciones de los demás concursantes, en dicho apartado se vean proporcionalmente ponderadas.

2) Atal bakoitzeko puntuazioa haztatu ahal izango da, modu arrazoituan betiere, 1/0, 8/0, 5/0, 1 koefizienteak erabilita, merezimenduek jakintza-arloaren ezaugarrietarako duten egokitasunaren arabera. Dena dela, balioespen-batzordeak zero puntu eman ahal izango die poltsaren ezaugarriekin zerikusirik ez daukaten merezimenduei. Edonola ere, merezimenduen baremazioa zehaztean argi eta garbi adieraziko da zein prozedura erabiliko den aipatutako koefizienteak aplikatzerakoan. Prozedura horretan beren-beregi azalduko da haztapen-faktoreak zein ataletan aplikatuko diren eta zelan. Gainera, zehazki adieraziko da zer den espezifikoa eta zer den kidekoa.

3) Baremaziorako irizpide espezifikoak:

1.– Laneko esperientzia eta beka-aldiak:

2) La puntuación otorgada en cada apartado podrá ser ponderada con los coeficientes 1/0, 8/0, 5/0, 1 de forma razonada, en función de la adecuación de los méritos a las características del área de conocimiento. Sin perjuicio de lo anterior, la Comisión podrá valorar con 0 puntos los méritos que no tengan ninguna relación con las características de la bolsa. En todo caso, el procedimiento a seguir para aplicación de los citados coeficientes se señalará explícitamente en el momento de concretar el baremo de méritos. Este procedimiento ha de indicar expresamente los apartados del baremo en que se van a aplicar los factores de ponderación y el modo concreto de aplicación, indicando de forma detallada qué se considerará específico y qué se considerará afín.

3) Criterios específicos de baremación:

1.– Experiencia laboral y período de disfrute de becas:

| | |
|---|---|
| Unibertsitateko irakaskuntza | ≤ 4 puntu/urte |
| Doktorego aurreko ikertzaile kontratatua/lankidea | ≤ 2 puntu/urte |
| Doktorego ondoko ikertzaile kontratatua | ≤ 3 puntu/urte |
| Unibertsitate-irakaskuntza eta ikerkuntzatik kanpoko esperientzia | ≤ 3 puntu/urte |
| Doktorego aurreko beka ofizialak (MEC, Eusko Jaurlaritza eta UPV/EHU) | ≤ 2 puntu/urte |
| Doktorego ondoko beka ofizialak (MEC, Eusko Jaurlaritza eta UPV/EHU) | ≤ 3 puntu/urte |
| Bestelako beka eta laguntzak | < 0,5 puntu/urte |

| | |
|---|---|
| *Docencia universitaria* | *< 4 puntos/año* |
| *Investigador contratado predoctoral/Ayudante* | *< 2 puntos/año* |
| *Investigador contratado postdoctoral* | *< 3 puntos/año* |
| *Experiencia fuera del ámbito docente e investigador universitario* | *< 3 puntos/año* |
| *Becas de convocatoria oficial del MEC, Gobierno Vasco y UPV/ EHU predoctorales* | *< 2 puntos/año* |
| *Becas de convocatoria oficial del MEC, Gobierno Vasco y UPV/ EHU postdoctorales* | *< 3 puntos/año* |
| *Otras becas y ayudas* | *<0,5 puntos/año* |

– Azken 10 urteak hartuko dira kontuan, baina ez dira zenbatuko, ostera, senideak zaintzeko eszedentziak, baimenak ama izateagatik eta 6 hilabetetatik gorako gaixotasun-lizentziak, baldin eta egoera horiek guztiak egiaztatu badira.

– Arduraldi partzialean egindako zerbitzuak haztatu egingo dira, unibertsitateko irakaskuntzarako erreferentziatzat urtean 24 kreditu edo astean 8 irakastordutako unitatea hartuta. Bestelako kontratuak ere antzeko era honetara balioetsiko dira.

– Euskal Herriko Unibertsitatean egindako irakaskuntzako zerbitzuak direnean, ez da beharrezkoa izango horiek egiaztatzea, administrazio honek ofizioz

– Se puntuarán los últimos 10 años, exceptuando de su cómputo el período en el que la candidata o candidato ha disfrutado de una excedencia por cuidado de familiares o un permiso de maternidad, así como las licencias por enfermedad con duración superior a 6 meses, circunstancias que deberá acreditar.

– Los servicios prestados en régimen de dedicación a tiempo parcial se ponderarán, tomando como referencia de la unidad, para la docencia universitaria, los 24 créditos anuales o las 8 horas lectivas semanales. De forma similar se ponderarán contratos de otro tipo.

– No será necesario acreditar los servicios docentes prestados en la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, se adjuntarán por la propia

erantsiko baititu. Dena dela, irakatsitako irakasgaiak jasotzen dituen ziurtagiria aurkeztu ahal izango dute izangaiek.

– Irakaskuntza publikoan egindako zerbitzuak zerbitzu-orriaren bidez eta emandako irakasgaiak jasotzen dituen ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira.

– Irakaskuntza pribatuan egindako zerbitzuak egiaztatzeko lan-kontratua eta Gizarte-Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emandako ziurtagiria (ikastetxearen –enpresaren– izena eta alta-aldia jasoko dituena) aurkeztuko dira. Horrez gain, irakatsitako irakasgaiak jasotzen dituen ziurtagiria ere erantsi beharko da.

– Ikertzaile moduan betetako zerbitzuak doktorego ondoko ikerkuntzaren atalean baloratuko dira, baldin eta izangaiak egiaztatzen badu kontratazio horretarako doktore-titulua eskatzen dela. Bestelakoetan, izangaiak titulua izan arren, doktorego aurreko ikerkuntzaren atalean baloratuko dira.

– Laneko esperientzia, oro har, honela egiaztatuko da:

+ Besteren konturako lan-esperientzia izanez gero, lan-kontratuaren kopiaren bidez eta Gizarte-Segurantzako Diruzaintza Orokorraren ziurtagiriaren bitartez. Enpresaren ziurtagiria ere aurkeztu beharko da, interesatuak betetako lanpostuak eta zereginak zehaztuko dituena.

+ Norbere konturako lan-esperientzia izanez gero, egindako jardueren zinpeko aitorpenaren bidez eta dagokion Ogasun-Sailak emandako ziurtagiriaren bitartez, jarduera ekonomikoen gaineko zergan izandako alta-aldiak jasotzen dituena. Aurrekoaz gain, egindako lanak egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu (BEZaren aitorpenak, adibidez).

– Bekak egiaztatzeko, berriz, beka-deialdia egin zuen organoaren ziurtagiria aurkeztu behar da. Ziurtagiri horretan beren-beregi adieraziko da noiztik noiz arte izan zuen beka izangaiak, eta denboraldi horretan etenaldirik egon zen ala ez.

– Aldi batera egindako lan eta beka-aldiak balioetsi egingo dira, gehien dela, 4 puntu urtean.

administración de oficio. No obstante lo anterior, las concursantes y los concursantes podrán presentar certificación comprensiva de las materias impartidas.

– Los servicios docentes prestados en la enseñanza pública se acreditarán mediante hoja de servicios y certificación comprensiva de las materias impartidas.

– Los servicios docentes prestados en la enseñanza privada se acreditarán mediante contrato de trabajo y certificación expedida por la Tesorería General de la Seguridad Social donde conste el nombre del centro (empresa) y el período de alta. Deberá adjuntarse también la certificación comprensiva de las materias impartidas.

– Los servicios prestados como investigador serán valorados en el apartado de investigador postdoctoral en el supuesto de que por parte de la candidata o candidato se acredite la exigencia del título de Doctor para dicha contratación. En caso contrario se valorarán en el apartado de investigación predoctoral, con independencia de que dicha candidata o candidato ostente dicho título.

– La experiencia profesional se acreditará, con carácter general, de la siguiente forma:

+ Cuando se trate de experiencia profesional por cuenta ajena mediante la copia del contrato de trabajo y certificación de la Tesorería General de la Seguridad Social. Se acompañará certificado de la empresa en el que se expliquen los puestos y labores realizadas.

+ Cuando se trate de experiencia profesional por cuenta propia mediante declaración jurada de las actividades realizadas y la certificación de la Hacienda correspondiente con los períodos de alta en el Impuesto de Actividades Económicas. Además de lo anterior resultará necesario aportar documentación justificativa de los trabajos efectivamente realizados (declaraciones de IVA por ejemplo).

– El período de disfrute de becas se acreditará mediante certificación del órgano que convocó la misma, certificación en la que expresamente se diga la fecha de inicio y fin de su disfrute y si durante su disfrute se ha realizado suspensión alguna.

– Se valorarán los periodos de trabajo/becas que coincidan en el tiempo, con el límite de 4 puntos/año.

2.– Ikerkuntza-merezimenduak:

| | | |
|---|---|---|
| Ikerketa-proiektuak | Kanpoko erreferentziarekin | |
| | Ikertzaile nagusia | ≤ 1,25 puntu/urte |
| | Lankidea | ≤ 0,75 puntu/urte |
| | Kanpoko erreferentziarik gabe | |
| | Ikertzaile nagusia | ≤ 0,37 puntu/urte |
| | Lankidea | ≤ 0,25 puntu/urte |
| Arte Ederretako plazetan, balioespen-batzordeak erabaki dezake ikerlantzat hartzea izangaiaren obra plastikoa, eta dossier behar bezain argigarria ikusita, ≤5 punturekin baloratu ahal izango du. | | |
| Argitarapenak, garrantziaren, eraginaren eta poltsarekin daukan loturaren arabera | Liburua | ≤ 5 puntu |
| | Liburuko kapitulua | ≤ 2,5 puntu |
| | Artikulua | ≤ 3 puntu |
| | Arte Ederretako katalogoa (gehienez 5) | ≤ 0,5 puntu |
| Patenteak | | ≤ 2 puntu |
| Kongresuak | Ponentzia | ≤ 1 puntu |
| | Komunikazioa | ≤ 0,5 puntu |
| Tesiak zuzentzea | | ≤ 3 puntu |
| IAD/master amaierako lanak zuzentzea | | ≤ 0,5 puntu |
| Ikerkuntza-zentroetako egonaldiak (bi hilabetetatik gora) | | ≤ 2 puntu/urte |
| Ikerkuntzako bestelako merezimenduak | | ≤1 puntu guztira |

2.– Méritos de investigación:

| | | |
|---|---|---|
| *Proyectos de Investigación* | *Con referencia externa* | |
| | *Investigador principal* | *< 1,25 puntos/año* |
| | *Colaborador* | *< 0,75 puntos/año* |
| | *Sin referencia externa* | |
| | *Investigador principal* | *< 0,37 puntos/año* |
| | *Colaborador* | *< 0,25 puntos/año* |
| *Para Bellas Artes la Comisión de Evaluación podrá determinar el carácter investigador de la obra plástica del concursante y, a la vista de un dossier ilustrativo, evaluarla con < 5 puntos* | | |
| *Publicaciones según importancia, impacto y adecuación a la bolsa.* | *Libro* | *< 5 puntos* |
| | *Capítulo de libro* | *< 2,5 puntos* |
| | *Artículo* | *< 3 puntos* |
| | *Catálogo BB. AA. (hasta un máximo de 5)* | *< 0,5 puntos* |
| *Patentes* | | *< 2 puntos* |
| *Congresos* | *Ponencia* | *< 1 punto* |
| | *Comunicación* | *< 0,5 punto* |
| *Dirección de Tesis* | | *< 3 puntos* |
| *Dirección de DEAs/Trabajos Fin de Master* | | *< 0,5 puntos* |
| *Estancias en Centros de Investigación (superiores a dos meses)* | | *< 2 puntos/año* |
| *Otros méritos de investigación* | | *< 1 punto total* |

– Azken 10 urteak hartuko dira kontuan, baina zenbatzerakoan ez dira aintzat hartuko senideak zaintzeko eszedentziak, baimenak ama izateagatik eta 6 hilabetetatik gorako gaixotasun-lizentziak, baldin eta egoera horiek guztiak egiaztatu badira. Besterik adierazi ezean, ezarritako puntuazioak unitateko izango dira.

3.– Irakaskuntzako merezimenduak eta gestio akademikokoak:

